

13 TESTU LABURRAK IDATZIZKO ULERMENA LANTZEKO.

Egilea: Nekane R.

IZENA: _____ DATA: _____ **JON ESKOLAN DAGO**

Jon **eskolan** dago. Jon beste neska-mutilekin **taldean** eserita dago.

Andereñoak **arbelan** idazten ari da eta ikasleak **koadernoan** idazten dute.

Jonek eskua altxatu du eta galdetu du:

- Non dago nire arkatza?
- Nolakoa da?-galdetu du Josuk.
- Horia, beltza eta txikia da.-esan du Jonek.

Jonen arkatza ez dago. Guztiak bilatzen ari dira. Azkenean Josuk esan du:

- **Hemen** dago!

Jonen arkatza Josuren **mahai azpian** dago.

1- Borobildu erantzun zuzena:

- Gaur desagertu da
 - Arkatza.
 - Borragoma.
 - Estutxea.
- Andereñoak ...
 - Koadernoan idazten ari da.
 - Arbelan idazten ari da.
 - Liburuan idazten ari da.
- Arkatza...
 - Iñakirena da.
 - Jonena da.
 - Peiorena da.
- Akatza...
 - Mahai azpian agertu da.
 - Mahai gainean agertu da.
 - Ez da agertu.
- Peiok...
 - Liburua aurkitu du.
 - Koadernoak aurkitu du.
 - Arkatza aurkitu du.

2- Borobildu bai ala ez.

- Gaur Jonen arkatza desagertu da.
BAI EZ
- Arkatza gorria eta urdina da.
BAI EZ
- Andereñoak arbelan idazten ari da.
BAI EZ
- Neska-mutilak arbelan idazten ari dira.
BAI EZ
- Arkatza ez da agertu..
BAI EZ

3- Zer gertatu da gaur Jonen gelan?

Gaur _____

4- Norena da arkatza?

Arkatza _____

5- Non agertu da arkatza?

Arkatza _____

6- Nork aurkitu du arkatza?

Arkatza _____

7- Nolakoa da arkatza?

Arkatza _____

8- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

9- Hurrengo esaldiak osatu:

- Arkatz _____desagertu da.
(gorria, beltza, urdina)
- _____mahai azpian dago.
(Joneren, Josuren, Mikelen)
- Arkatza _____da.
(Peiorena, Jonena, Mikelena)

10- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

arkatza da galdu Jonen

IZENA: _____ DATA: _____ **SHILIN ESKOLARA DOA**

Neska-mutilak gelako aukietan eserita daude. Andereñoa zutik dago eta esaten du:

- Gaur mutil berri bat heldu da gure eskolara. **Txinatik** dator. Mutila **Txinakoa** da. Txina urrun-urrun dago.

Gero andereñoak, Txina non dagoen, mapan erakusten die ikasleei.

-**Mutilaren** izena Shilin da- esaten du andereñoak.

-Egunon, Shilin!- esaten diote neska-mutilek.

Azkenean, ikasleek **haien** izenak esaten dute eta **lagunen** koadernoak betetzen dute. Gaur Shilin pozik doa etxera, eta **neska-mutilen** izenak ikasiko ditu.

Zelako lana!

11- Borobildu erantzun zuzena:

- Gaur etorri da
 - neska.
 - mutila.
 - txakurra.
- Andereñoak ...
 - Koadernoan seinalatzen ari da.
 - Mapan seinalatzen ari da.
 - Liburuan seinalatzen ari da.
- Mutila...
 - Jon da.
 - Shilin da.
 - Mikel da.
- Shilin...
 - Errumaniatik etorri da.
 - Perutik etorri da.
 - Txinatik etorri da.
- Neska-mutilek...
 - Agur esaten dute.
 - Arratsaldean esaten dute.
 - Egunon esaten dute.

12- Borobildu bai ala ez.

- Gaur Shilin eskolara etorri da.
BAI EZ
- Shilin Boliviakoa da.
BAI EZ
- Andereñoak Shilini eskua ematen dio.
BAI EZ
- Neska-mutilek "agur" esaten diote.
BAI EZ
- Shilin etxera pozik doa.
BAI EZ

13- Zer gertatu da gaur Joneren gelan?

Gaur _____

14- Nondik dator mutil berria?

Mutil berria _____

15- Nongoa da mutil berria?

Mutil berria _____

16- Nork erakusten du mapan Txina non dagoen?

17- Nola du izena mutil berriak?

Mutil berriak _____

18- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

19- Hurrengo esaldiak osatu:

- Eskolara _____ etorri da.
(neska, mutila, gizona)
- _____ dator.
(Txinatik, Perutik, Boliviatik)
- Mutil berria _____ da.
(Boliviakoa, Perukoa, Txinakoa)

20- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

etxera pozik Shilin doa Gaur

IZENA: _____ DATA: _____ JON JOLASTOKIAN

Gelako neska-guztiak **jolastokian** daude. Batzuk, **futbolera** jolasten ari dira, beste batzuk **harrapatzera** jolasten ari dira.

Jon **saskibaloira** jolasten ari da. Joni saskibaloia asko gustatzen zaio. Jon oso ona da saskibaloian jolasten.

Jon, Mikel eta Shilinekin **jolasten ari da**. Mikelek baloia saskira botatzen du, baina ez da sartzen. Jonek baloia hartzen du, hiru bote ematen ditu eta saskira botatzen du. Baloia hasieran, egurraren kontra jotzen du, gero uztaiaren ingurutik birak ematen ditu eta azkenik, saskian sartzen da.

- Oso ondo, Jon !- esaten dio Shilinek.
- Primeran egin duzu. Zorionak!- esaten dio Mikelek.

21- Borobildu erantzun zuzena:

-daude.
 - Gelan..
 - Jolastokian.
 - Kalean.
- Jon ...
 - Futbolera jolasten ari da.
 - Tenisera jolasten ari da.
 - Saskibaloira jolasten ari da.
- Joni...
 - Saskibaloia gustatzen zaio.
 - Igeriketa gustatzen zaio.
 - Futbola gustatzen zaio.
- Jon...
 - Aitor eta Janirerekin jolasten ari da.
 - Jana eta Nahiarekin jolasten ari da.
 - Mikel eta Shilinekin jolasten ari da.
- Mikelek ...
 - Baloia saskian sartzen du.
 - Baloia ez du saskian sartzen.
 - Baloia gora botatzen du.

- 22- Borobildu bai ala ez.
- Jon futbolera jolasten ari da.
BAI EZ
 - Jon Aitor eta Ianekin jolasten ari da.
BAI EZ
 - Joni saskibaloia gustatzen zaio.
BAI EZ
 - Jonek baloia Mikeli pasatzen dio.
BAI EZ
 - Jonek baloia saskian sartzen du.
BAI EZ

23- Non daude neska-mutilak jolasten?

Neska-mutilak _____

24- Zertara ari dira jolasten Jon, Mikel eta Shilin?

Jon, Mikel eta Shilin _____

25- Zer gustatzen zaio Joni?

Joni _____

26- Norekin jolasten du Jonek?

Jonek _____

27- Nork sartu du baloia saskian?

Baloia saskian _____

28- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

29- Hurrengo esaldiak osatu:

- Jon _____ jolasten ari da.
(futbolera, harrapatzera, saskibaloira)
- Joni _____ gustatzen zaio.
(tenisa, igeritokia, saskibaloia)
- Jonek _____ baloia sartu du.
(atean, saskian, putzuan)

30- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

ditu uztaiaren birak ematen Gero ingurutik

IZENA: _____ DATA: _____ FUTBOL ZELAIAN

Neska-mutilak futbol zelaian, futbolera jolasten ari dira.

Igorrek hartzen du baloia eta korrika aurrera doa. Igorri futbola asko gustatzen zaio eta oso **trebea** da. Igorrek **ostikada** ematen dio baloiari. Berak indarrez botatzen du baloia. Atezainak ezin du baloia gelditu. Igorrek gola sartu du.

Ondoren, Josuk hartzen du baloia eta Imanoli pasatzen dio. Imanolek ostikada ematen dio baloiari. Imanolek **indarrez** botatzen du baloia.

Baina **atezaina** orain, eskuekin oso ondo gelditu du baloia.

-Oso ondo, Shilin!-esaten du Anek. Shilin pozik dago, baina eskuak **minduta** ditu. - Shilin! Hurrengoan **eskularruak** ekarri!- esaten dio Igorrek.

31- Borobildu erantzun zuzena:

-daude.
 - Gelan..
 - Jolastokian.
 - Fútbol zelaian.
- Neska-mutilak.....
 - Futbolera jolasten ari dira.
 - Tenisera jolasten ari dira.
 - Saskibaloira jolasten ari dira.
- Igorri.....
 - Saskibaloia gustatzen zaio.
 - Igeriketa gustatzen zaio.
 - Futbola gustatzen zaio.
- Igor.....
 - Aitor eta Janirerekin jolasten ari da.
 - Jana eta Nahiarekin jolasten ari da.
 - Josu, Imanol, Ane eta Shilinekin jolasten ari da.
- Igorrek.....
 - Baloia saskian sartzen du.
 - Baloia ez du atean sartzen.
 - Baloia atean sartzen du.

- 32- Borobildu bai ala ez.
- Igor futbolera jolasten ari da.
BAI EZ
 - Jon, Ane eta Ianekin jolasten ari da.
BAI EZ
 - Igorri futbola gustatzen zaio.
BAI EZ
 - Igorrek baloia Mikeli pasatzen dio.
BAI EZ
 - Igorrek baloia atean sartzen du.
BAI EZ

33- Non daude neska-mutilak jolasten?

Neska-mutilak _____

34- Zertara ari dira jolasten Igor, Josu eta Shilin?

Igor, Josu eta Shilin _____

35- Zer gustatzen zaio Igorri?

Igorri _____

36- Norekin jolasten du Igorrek?

Igorrek _____

37- Nork sartu du baloia atean?

Baloia atean _____

38- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

39- Hurrengo esaldiak osatu:

- Igor _____ jolasten ari da.
(futbolera, harrapatzera, saskibaloiara)
- Igorri _____ gustatzen zaio.
(tenisa, igeritokia, futbola)
- Igorrek _____ baloia sartu du.
(atean, saskian, putzuan)

40- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

baloia indarrez du Imanolek botatzen

IZENA: _____ DATA: _____ **EROSKETAK**

Shilinek Ian kolean ikusten du:

- Kaixo Ian! Nora zoaz?
- **Dendara** noa. Ogia eta txorizoa **erostera**. Bazatoz?
- Bai, zurekin noa.

Ogia eta txorizoa erosi eta gero Ian eta Shilin plazara doaz jolastera. Hor, plazan beste lagunak daude. **Ezkutatzera** jolasten dute. Arratsaldeko 7ak dira.

- Agur! Etxera noa! Bihar arte lagunak!- esaten du Shilinek.
- Shilin! **Itxaron! Zurekin** joango naiz!- esaten dio Ianek.
- Ian, non dituzu ogia eta txorizoa? - galdetzen dio Shilinek.

41- Borobildu erantzun zuzena:

- Shilinek.....ikusten du.
 - Igor.
 - Ian.
 - Ane.
- Ian
 - Zinemara doa.
 - Metrora doa.
 - Dendara doa.
- Ianek.....
 - Goxokiak erosten ditu.
 - Ogia eta txorizoa erosten ditu.
 - Kromoak erosten ditu.
- Shilin eta Ian.....
 - Futbolera jolasten dute.
 - Saskibaloira jolasten dute.
 - Ezkutatzera jolasten dute.
- Arratsaldeko.....
 - Zazpiak dira.
 - Bostak dira.
 - Seiak dira.

- 42- Borobildu bai ala ez.
- Shilinek Ian kalean ikusten du.
BAI EZ
 - Shilin eta Ian zinemara doaz.
BAI EZ
 - Ianek bananak erosten ditu.
BAI EZ
 - Plazan futbolera jolasten dute.
BAI EZ
 - Shilin 7etan etxera doa.
BAI EZ

43- Non ikusten du Shilinek Ian?

Shilnek _____

44- Nora doa Ian?

Ian _____

45- Zer erosten du Ianek?

Ianek _____

46- Non jolasten dute Ianek eta Shilinek?

Ianek eta Shilinek _____

47- Zertara jolasten dute Ianek eta Shilinek?

Ianek eta Shilinek _____

48- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berriatzi eta azpimarratu.

49- Hurrengo esaldiak osatu:

- Ianek _____ erosi ditu.
(arroza, bananak, ogia eta txorizoa)
- Shilin _____ doa.
(menditik, kaletik, hondartzatik)
- Shilinek eta Ianek _____ jolasten dute.
(futbolera, harrapatzera, ezkutatzera)

50- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

Shilin eta doaz. Ian jolastera plazara

IZENA: _____ DATA: _____ TXISTEAK KONTATZEN

Gaur gure gelara irakasle berria etorri da.

- Egunon!- esan du.
- Egunon!- esan diogu guk ere.

Maisuak bere izena esan digu guri, eta guk berari gurea esan diogu. Shilini esan dio irakurtzeko eta, jarraitzeko Janari, baina izenaz erratu egin da eta "Nahia" deitu dio. Jana barrezka hasi da. Janak barrezka jarraitu du, ezin gelditu.

Azkenean, maisuak esan du:

- Jana, konta iezaguzu beste txiste bat!

Jana oso atsegina denez, txiste bat kontatu du eta horrela, denok barre egin duau

51- Borobildu erantzun zuzena:

- Gaur.....etorri da.
 - irakaslea.
 - mutila.
 - neska.
- Irakasleakesan du.
 - Kaixo!.
 - Egunon!.
 - Agur!.
- Maisuak.....esan du.
 - Bere helbidea.
 - Bere urteak.
 - Bere izena .
- Janak.....
 - Negarrez egon da.
 - Barrezka egon da.
 - Triste egon da.
- Janak.....
 - Txistea kontatu du.
 - Ipuina kontatu du.
 - Albistea kontatu du.

- 52- Borobildu bai ala ez.
- Maisu berria etorri da.
BAI EZ
 - Maisua izenez erratu da.
BAI EZ
 - Jana negarrez hasi da.
BAI EZ
 - Shilin barrezka hasi da..
BAI EZ
 - Janak txistea kontatu du.
BAI EZ

53- Nora etorri da irakasle berria?

Irakasle berria _____

54- Zer esan du irakasleak?

Irakasleak _____

55- Nori esan dio izena irakasleak?

Irakasleak _____

56- Nori esan diote ikasleek izena?

Ikasleek _____

57- Nork kontatu du txistea?

Txistea _____

58- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

59- Hurrengo esaldiak osatu:

- Irakasleak _____ esan du.
(egunon!, agur!, gabon!)
- Jana _____ hasi da.
(negarrez, barrezka, eztulka)
- Janak _____ kontatu du.
(ipuina, txistea, albistea)

60- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

du. atsegina bat kontatu oso Jana txiste denez,

IZENA: _____ DATA: _____ **NAHIAK LIBURUA IRAKURTZEN DU.**

Nahiak motxila **zabald**u du eta liburu polita **atera** du. Nahia liburua irakurtzen hasi da. Nahiari irakurtzea asko gustatzen zaio.

Shilin Nahiaren **ondoan** eseri da eta liburua **begira** dago.

-Oso liburu polita duzu. Marrazkiak eta kolore asko ditu.- esaten dio.

-Bai, eta margozteko da ere. Begira! - erantzuten dio Nahiak.

Nahiak margoak atera ditu eta liburuaren marrazkiak koloreatzen hasi da.

- Nik ere nahi dut bat!- esaten du Shilinek.

- Non **eros dezaket** liburu hori? - galdetzen dio Shilinek.

- Ez dakit. Niri **oparitu** didate eta hemen daukat beste liburu bat zuretzat! -
dio Nahiak.

Zelako sorpresa !

61- Borobildu erantzun zuzena:

- Nahia.....ari da.
 - jolasten.
 - jaten.
 - irakurtzen.
- Nahiakdauka.
 - Katua.
 - Liburua.
 - Jostailua.
- Nahiari.....gustatzen zaio.
 - Irakurtzea .
 - Dantza egitea.
 - Ibiltzea.
- Liburuak.....
 - Marrazkiak ditu.
 - Pegatinak ditu.
 - Goxokiak ditu.
- Nahiak.....
 - Margoak atera ditu.
 - Motxila atera du.
 - Zapia atera du.

- 62- Borobildu bai ala ez.
- Nahiak liburu berria du.
BAI EZ
 - Nahiari dantza egitea gustatzen zaio.
BAI EZ
 - Liburua Shilinena da.
BAI EZ
 - Nahia liburua margozen ari da.
BAI EZ
 - Nahiak Shilini goxokia ematen dio.
BAI EZ

63- Zer atera du Nahiak motxilatik?

Nahiak _____

64- Zertan ari da Nahia?

Nahia _____

65- Nolakoa da Nahiaren liburua?

Nahiaren liburua _____

66- Nori gustatzen zaio Nahiaren liburua?

Nahiaren _____

67- Zer ematen dio Nahiak Shilini?

Nahiak _____

68- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

69- Hurrengo esaldiak osatu:

- Nahiari _____ gustatzen zaio.
(dantza egitea, jolastea, irakurtzea)
- Shilinek _____ nahi du.
(goxokiak, boligrafoa, liburua)
- Nahiak _____ eman dio.
(ipuina, liburua, albistea)

70- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

zuretzat! oparitu eta hemen beste bat Niri didate dago

IZENA: _____ DATA: _____

MARIANEN AHIZPAK.

- Nora joan da Marian?- **galdetzen du** Nahiak.
- Bere ahizpekin jolastera joan da.- **esaten dio** Shilinek.
- Ahizpekin? Zenbat ahizpa ditu Marianek?- **galdetzen dio** Nahiak.
- Hiru ahizpa ditu.- **erantzuten dio** Shilinek.

Handik, kaletik Marian dator eta Nahiak **deitzen dio**.

- Ehhh!!! Marian!!! Bazatoz gurekin!!!
- Kaixo! Nora zoazte?- **galdetzen die** Marianek.
- Zinemara goaz! Bazatoz gurekin? Zer moduz zure ahizpak?- **esaten diote**

Nahiak eta Shilinek.

- Ze ahizpak? Nik ahizpa bat bakarrik daukat!- dio Marianek. **Hau sorpresa!!!**

71- Borobildu erantzun zuzena:

- Marian.....ari da.
 - jolasten
 - jaten
 - irakurtzen
- Marianekdauka.
 - Katua
 - Liburua
 - Ahizpa
- Marian.....doa.
 - Zinemara
 - Dantzatokira
 - Frontoira
- Marian.....badoa.
 - Shilin eta Nahiarekin
 - Jon eta Gorkarekin
 - Mikel eta JAnarekin
- Shilinek.....
 - Sorpresa hartu du.
 - Sustoa hartu du.
 - Lotsatu egin da.

- 72- Borobildu bai ala ez.
- Marianek hiru ahizpa ditu.
BAI EZ
 - Marian Shilin eta Nahiarekin zinemara doa.
BAI EZ
 - Nahiak Mariani deitzen dio.
BAI EZ
 - Shilinek sorpresa hartu du.
BAI EZ
 - Marian haserre dago.
BAI EZ

73- Nora joan da Marian ?

Marian _____

74- Norekin joan da Marian jolastera?

Marian _____

75- Zenbat ahizpa dituela Marianek esaten du Shilinek?

Shilinek esaten du, Marianek _____

76- Nora doaz Shilin eta Nahia?

Shilin eta Nahia _____

77- Zenbat ahizpa ditu Marianek?

Marianek _____

78- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

79- Hurrengo esaldiak osatu:

- Marian _____ joan da.
(dantza egitera, jolastera, irakurtzera)
- Shilin eta Nahia _____ doaz.
(patiora, zinemara, dendara)
- Nahiak _____ deitzen dio.
(Gorkari, Mariani, Xabiri)

80- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

daukat! ahizpa bakarrik Nik bat

IZENA: _____ DATA: _____

MIKEL KIROLARIA.

Mikel kirolari amorratua da. **Beti** dabil leku batetik bestera kirola egiten. Kaletik ikusten dugunean beti dago kirola egiten. **Batzuetan** futbolean dabil, **beste batzuetan** saskibaloian. **Askotan** patinez espaloietatik abiadura biziaz ibiltzen da. Eskolako patiotik ere patinez mugitzen da. **Gutxitan**, espaloitik oinez joaten da. **Gaur** kalean Shilinekin aurkitu da eta agurtu egin dio:

- Kaixo Shilin! Bazatoz eskolara!- esan dio Mikelek.
- Bai, zurekin noa!-dio Shilinek-Baina **gaur** zeren gainean zabilta, Mikel ?
Zer da tramankulu hori?-galdetzen dio Shilinek.
- Hau! Goitibehera da ! - erantzuten du Mikelek.
- Ai, Mikell! Zu beti gurpilen gainean!- esaten dio Shilinek.

81- Borobildu erantzun zuzena:

- Mikel..... da.
 - kirolaria
 - margolaria
 - dendaria
- Mikelekegiten du.
 - marrazkia
 - kirola
 - janaria
- Mikel.....doa.
 - menditik
 - hondartzatik
 - kaletik
- Mikel.....dabil.
 - oinez
 - trenez
 - patinez
- Shilinek.....
 - Sorpresa hartu du.
 - Sustoa hartu du.
 - Harritu egin da.

- 82- Borobildu bai ala ez.
- Mikel kirolari amorratua da.
BAI EZ
 - Shilin patinetez dabil.
BAI EZ
 - Mikeli kirola egitea gustatzen zaio.
BAI EZ
 - Mikel patinez hondartzatik dabil.
BAI EZ
 - Mikel eskolako patiotik patinez dabil.
BAI EZ

83- Nolakoa da Mikel ?

Mikel _____

84- Zer gustatzen zaio Mikeli egitea?

Mikeli _____

85- Nola ibiltzen da Mikel espaloietatik patinez?

Mikel patinez _____

86- Mikel askotan joaten da oinez kaletik?

Mikel _____

87- Zeren gainean doa gaur Mikel eskolara?

Gaur _____

88- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berriidatzi eta azpimarratu.

89- Hurrengo esaldiak osatu:

- Mikel _____ da.
(kirolaria, dendaria, irakaslea)
- Mikel eskolara _____ doa.
(patinez, oinez, kotxez)
- Mikel _____ dabil.
(kamioi gainean, mahai gainean, patinen gainean)

90- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

egin kalean da agurtu Gaur dio Shilinekin aurkitu eta

IZENA:_____ DATA:_____ MIRENEN LIBURUA.

Miren, Jana eta Nahia liburutegian **mahai baten inguruan** jesarri dira. Mahai **gainen** kolore askotako liburuak jarri dituzte eta hitz egiten hasi dira.

Hiru neskak poz-pozik daude eta oso gustora **elkarrekin** hitz egiten.

Shilin **neskeengana** hurbildu da:

- Egunon neskak! Zer duzue hor, mahai gainean?- esaten die Shilinek.
- Gure liburu berriak.- erantzuten diote neskek.
- Liburu berri hauek irakurtzeko dira?-galdetzen die Shilinek.
- Ez, ez dira **irakurtzeko**, pegatinak **itsasteko** eta **margozteko** dira.
- Oso ondo! Holakoak dira, nire gustuko liburuak.- dio Shilinek.
- Zuri irakurtzea ez zaizu asko gustatzen ezta Shilin?- dio Mirenek.

91- Borobildu erantzun zuzena:

- Miren..... dago.
 - Jana eta Nahiarekin
 - Mikelekin
 - Andrearekin
- Neskakdaude.
 - jolastokian
 - liburutegian
 - liburudendan
- Neskak.....eseri dira.
 - Aulkiaren inguruan
 - Atearen inguruan
 - mahaiaren inguruan
- Liburuak.....jarri dituzte.
 - Mahai gainean
 - Mahai azpian
 - Armairuaren gainean
- Liburuak.....
 - Margozteko dira.
 - Irakurtzeko dira.
 - Idazteko dira.

- 92- Borobildu bai ala ez.
- Neskak jolastokian daude.
BAI EZ
 - Neskek goxokiak dituzte..
BAI EZ
 - Shilinek neskeekin hitz egiten du.
BAI EZ
 - Shilini liburuak gustatzen zaizkio.
BAI EZ
 - Shilini irakurtzea asko gustatzen zaio.
BAI EZ

93- Non daude neskak ?

Neskak _____

94- Non jarri dituzte liburuak?

Neskek _____

95- Nor hurbildu da neskeengana?

Neskeengana _____

96- Nolakoak dira liburuak?

Liburuak _____

97- Zer gustatzen zaio Shilini?

Shilini _____

98- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

99- Hurrengo esaldiak osatu:

- Miren _____ dago.
(mutilekin, neskekin, tximinoekin)
- Neskek _____ dituzte.
(goxokiak, patinak, liburuak)
- Miren _____ erantzuten dio.
(Mikeli, Shilini, Gorkari)

100- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

gustatzen zaizu asko ezta Shilin ? Zuri ez irakurtzea

IZENA: _____ DATA: _____ IMANOL LAGUN MINA.

Gaur astelelena da eta Shilinek etxetik baloia ekarri du, gero jolastorduan futbolera gelako lagunekin jolasteko. **Gutxitan** jolasten du futbolera, baina gero eta gehiago gustatzen zaio kirola egitea.

- Egunon, Shilin! Zer? Baloia ekarri duzu?- esaten dio Imanolek.
- Kaixo, Imanol! Bai, **futbolera** jolasteko ekarri dut.-erantzuten dio Shilinek.
- Oso ondo. Taldeak **antolatuko ditugu** eta ni zure taldean egongo naiz, ezta?- dio Imanolek.
- Bai, noski! Nire **ekipoan** egongo zara.-dio Shilinek.

Partidua amaitu eta gero, Shilin **zoriontsu** dago. Imanol ere pozik dago. Imanol Shilinen **lagun mina** da. **Primeran** pasatu dute!

101-

Borobildu erantzun zuzena:

- Gaur..... da.
 - Ostirala
 - larunbata
 - astelehena
- Shilinekekarri du.
 - baloia
 - goxokiak
 - liburua
- Baloia.....da.
 - Saskibaloira jolasteko.
 - Zelai- erretara jolasteko.
 - Futbolera jolasteko.
- Shilinen taldean.....egongo da.
 - Imanol
 - Nahia
 - Gorka
- Baloia.....da.
 - Gorkarena.
 - Shilinena.
 - Imanolena

- 102- Borobildu bai ala ez.
- Shilinek liburua ekarri du.
BAI EZ
 - Imanol Shilinen ekipoan egongo da.
BAI EZ
 - Shilin eta Imanol lagun handiak dira.
BAI EZ
 - Partidua amaitzen denean triste daude.
BAI EZ
 - Shilin saskibaloira jolasten du.
BAI EZ

103- Shilinek liburua ekarri du?

Ez, _____

104- Shilini tenisa gustatzen zaio?

Ez, _____

105- Shilinek futbolera askotan jolasten du?

Ez, _____

106- Nekane Shilinen taldean dago?

Ez, _____

107- Partidua amaitzen denean triste daude?

Ez, _____

108- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

109- Hurrengo esaldiak osatu:

- Shilin _____ hitz egiten ari da.
(Janarekin, Nahiarekin, Imanolekin)
- Shilin eta _____ lagunak dira.
(Ana, Imanol, Mikel)
- Amaieran _____ daude.
(triste, haserre, pozik)

110- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

Primeran da. dugu! mina Shilinen pasatu lagun

IZENA: _____ DATA: _____

EDERREK HAGINKA EGIN DIO.

Gimnasioan Gorputz Hezkuntzako klasea amaitu da. Irakasleak ikasleei ilaran jartzeko esan die. Erizek motxila bota du lurrera **ilaran**, Shilin korrika doa ilarara eta **lehenengoa** jarri da.

- Kendu hortik! Hor nire motxila dago eta hori nire lekua da!.- dio Erizek.

- Ez, ez eta ez! Ni nago hemen, lehenengoa naiz- esaten dio Shilinek.

Mutil biak **borrokan** hasi dira. Erizek **haginka** egiten dio Shilini besoa.

Haginkada ederra eman dio besoa. Shilin negarrez hasi da. Irakaslea hurbildu da eta mutilak **urrundu** ditu. Irakaslea oso haserre dago, mutil biekin hitz egin du.

Gorputz Hezkuntzako irakasleak tutoreari gertatutakoa kontatzen dio. Esther, tutorea, Shilini besoa sendatu dio. Shilinek bazituen beste haginkaden markak besoa eta bizkarrean, txakurren haginkadak ziren. Bitan Txinan txakurrek haginka egin zioten, behin besoa eta beste batean bizkarrean.

Gero, patio orduan Estherrek mutil biekin hitz egiten du eta ondoren mutil biak lagunak bihurtu dira betirako. Pasadizo hau orain dela asko gertatu zen. Gaur egun Shilin eta Eriz **lagun minak** dira eta oso ondo konpontzen dira.

111-

Borobildu erantzun zuzena:

- amaitu da.
 - Hizkuntzako klasea
 - Musikako klasea
 - Gorputz Hezkuntzako klasea
- Ikasleakjarri dira.
 - lurrian
 - ilaran
 - korroan
- Ilarara.....doaz.
 - astiro.
 - arrapaladan.
 - korrika.
- Shilin.....jarri da.
 - Bigarren lekuan
 - Bostgarren lekuan
 - Lehenengo lekuan
- Erizek.....bota du.
 - pilota.
 - motxila.
 - arkatza.
- Irakasleak ikasleak..... ditu.
 - urrundu.
 - hurbildu.
 - askatu.

112-

Borobildu bai ala ez.

- Shilin bigarren lekuan jarri da.
BAI EZ
- Eriz pozik dago.
BAI EZ
- Shilinek haginkada egin dio Ederri.
BAI EZ
- Irakaslea ikasleekin haserre dago.
BAI EZ
- Orain Eriz eta Shilin lagunak dira.
BAI EZ
- Mirenek Shilini besoa sendatu dio.
BAI EZ
- Shilini Txinan txakurrak haginka egin zion.
BAI EZ

113- Shilin hirugarren lekuan jarri da?

Ez, _____

114- Shilin astiro joan da ilarara?

Ez, _____

115- Erizek arkatza lurrera bota du?

Ez, _____

116- Irakasleak haginkada eman dio Shilini?

Ez, _____

117- Irakaslea pozik dago ikasleekin?

Ez, _____

118- Pedrok Shilini besoa sendatzen dio?

Ez, _____

119- Shilinek hankan haginkadaren marka dauka?

Ez, _____

120- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

121- Hurrengo esaldiak osatu:

- Shilin _____ jarri da ilaran.
(lehenengoa, bigarrena, hirugarrena)
- Shilin eta _____ borrokan hasi dira.
(Imanol, Jana, Eriz)
- Amaieran, Shilin eta Eriz _____ dira.
(etsaiak, lagunak, lehengusuak)

122- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

egun Gaur eta Eriz dira eta ondo dira. Shilin **lagun minak** oso konpontzen

IZENA: _____ DATA: _____

JULEN IRRIBARRETSUA.

Egun batean Shilin, Eriz, Ian, Julen eta Christian **leihaketa** bat egitea pentsatu zuten.

Txapelketaren epailea Ian zen. Guztiak kale luze batean jarri ziren eta korrika helmugaraino joan ziren. **Helmuga** eskolako atean zegoen. Bidaia luzea zen eta aldapatsua. Aldapa gora korrika egiten zeudenean, Shilinek lagunei txiste bat kontatu zien. Txistea laburra, baina oso dibertigarria zen. Eriz, Cristian eta Julen gelditu ziren eta barrezka hasi ziren. Ezin zuten korrika egin, **barrezka** eta **barrezka** geratu ziren mutiak aldapan.

Orduan, Shilinek korrika arinago egin zuen eta helmugara lehenengoa heldu zen. Shilinek irabazi zuen, Shilin **txapelduna** zen. Beste guztiek esan zuten:

- Ez, ez eta ez. Tranpa izan da- esan zuen Erizek.
- Ez du balio!- oihukatu zuen Cristinek.
- Shilinen txistea oso ona izan da eta barrezka geratu gara.- esan zuen Julenek.

Shilin lurrera bota zen oso haserre.

Ianek, epaileak, esan zuen:

- Ez du inork irabazi! Berriro egingo dugu korrika!

Orduan Julen barrezka hasi zen. Mutil guztiak **harrituta** geratu ziren Julen begira.

-Zergatik egiten zuen barre Julenek?

Shilinen txistea gogoratzen ari zelako oraindik, barre egiten zuen Julenek.

Azkenik, Shilinek beste txiste bat kontatu zuen eta denok barrezka hasi ziren.

123-

Borobildu erantzun zuzena:

- antolatu zuten.
 - leihaketa
 - bazkaria
 - jokoa
- Lagunakjarri ziren.
 - polikiroldegian
 - kolean
 - plazan
- Helmuga.....zegoen.
 - udalan
 - polikiroldegian
 - eskolan
- Shilinek.....kontatu zuen.
 - ipuina
 - berria
 - txistea
- Shilin.....heldu zen.
 - lehenengoa
 - bigarrena
 - hirugarrena
- Lagunak amaieran..... zeuden.
 - pozik
 - triste
 - haserre

124-

Borobildu bai ala ez.

- Lagunek Margo txapelketa antolatu zuten.
BAI EZ
- Gelako guztiek txapelketan parte hartuko zuten.
BAI EZ
- Shilinek txistea kontatzen zuen.
BAI EZ
- Eder epailea zen.
BAI EZ
- Txapelketa aldapa behera izan zen.
BAI EZ
- Shilinek txapelketa irabazi zuen.
BAI EZ
- Julen triste zegoen.
BAI EZ

125- Zer antolatu zuten Shilinek eta lagunak?

126- Noraino egin behar zuten korrika?

127- Zer egin zuten Shilinek?

128- Zergatik ez zuten balio korrika?

129- Zergatik heldu ziren haserre helmugara?

130- Zergatik zegoen Shilin haserre?

131- Zergatik zegoen Julen barrezka?

132- **Beltzez** idatzita dauden testuko hitzak berridatzi eta azpimarratu.

133- Hurrengo esaldiak osatu:

- Shilin _____ kontatzen du.
(txistea, berria, ipuina)
- Lagunak _____ hasten dira.
(negarrez, barrezka, garrasika)
- Shilin _____ da.
(txapelduna, galtzailea, garailea)

134- Ondoko hitzak ordenatu eta esaldia osatu:

zuen egiten Julenek? Zergatik barre

